

3. FUNTSEZKO ELKARTEAK



Gure proiektuak arrakasta izateko, aparkalekua bilatzeko zerbitzua bikaina izan behar da. Hau aurrera eramateko, udaletxearen laguntza behar dugu. Lekua librea edo okupatuta dagoen jakiteko, mugimendu sentsoreak instalatu behar ditugu aparkalekuetan, beraz udaletxearen baimena behar dugu.

Gure aplikazioak zerbitzu gehiago eskaintzeko, TAO zerga ordaintzeko aukera izatea gustatuko litzaiguke. Horregatik, aplikazioa TAO-ri saltzea pentsatu dugu. Horretarako, Gertek (<http://www.gerteksa.com/>) enpresarekin harremanetan jarri beharko gara. Horrez gain, ordaindu beharreko parking-ak aplikazioarekin ordaintzeko aukera izatea ere nahi dugu.

Gobernuaren laguntza ere behar dugu. Isunak kudeatzeko zerbitzua jarri nahi dugu aplikazioan eta horretarako gobernuak jakinarazi behar digu informazio hori bezeroengana helarazteko. Gobernuari zerbitzu hori gustatuko zaiola uste dugu, izan ere, pertsoneri isunak arinago helduko bait zaizkie. Eusko Jaurlaritzaren laguntza izango dugu horretarako.

Kotxeen marken laguntza izatea ere gustatuko litzaiguke, izan ere, gure aplikazioa kotxeetan jartzeko aukera izatea lagungarria baita gidaria mugikorrarekin ez distraitzeko.

Hasieran gure aplikazioa Getxon bakarrik funtzionatuko duenez, Getxoko Denden Elkartearekin kolaborazio bat egin nahi dugu. Haien diru laguntzen truke, bezero gehiago izatea lortuko dute.

“Getxobizi” zerbitzuarekin kolaborazio bat egin nahi dugu ere bai. “Getxobizi” bizikletak aparkatzeko lekua duen zerbitzu bat da, hauek alokatzeko aukera ere ematen duena. Kolaborazio honekin gure asmoa bizikletak eta patinete elektrikoak aparkatzeko leku libreak non dauden jakitea da.

Gure aplikazioa jendeari aurkezteko, Getxoko Udaletxearen laguntzarekin, aurkezpen bat egitea gustatuko litzaiguke. Nahiz eta udaletxeari salduko ez diogun, ondo etorriko zaio aplikazioaren erabilera, Getxoko ekonomia sustatzen lagunduko duelako (Getxoko Denden Elkarteentzat onuragarria izango da).

